



GOBERNU BATZARRA

2021.05.25

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Xabier Balerdi Tolosa

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Beloso

Patxi Amantegi Zubiria

Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren hogeita bostean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda:

1. Akta hau onartzea: 2021eko maiatzaren 18ko ohiko bilkurakoa.
2. Onartzea Tolosako udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arteko hitzarmena.
3. Onartzea Tolosako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arteko hitzarmena (Gidatzean drogarik dagoen egiaztatzea).
4. Dekretu honen berri ematea:
- 2021/ 844 Dekretua: 2021/13 eta 2021/14 faktura zerrendak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO MAIATZAREN 18KOA OHIKO BILKURAKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko maiatzaren 18an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ARTEKO HITZARMENA.

AURREKARIAK:

2006ko azaroaren 29an, uraren ziklo integrala kudeatzeko lankidetzeta-hitzarmena sinatu zen Tolosako Udala eta Gipuzkoako Ur kontsortzioaren artean.



Bigarren artikuluan agertzen da: *“el Ayuntamiento de Tolosa acuerda delegar, en la medida en que lo permita el ordenamiento jurídico, en el CONSORSIO DE AGUAS DE GIPUZKOA, cuantas potestades, atribuciones, competencias, facultades, derechos y obligaciones posee, en relación con la prestación de los servicios y fines que constituyen su objeto y finalidad.”*.

Orain, aipatutako konsorzioak eranskin proposamena bidali du, Datu pertsonalak babesteko konfidentzialtasunari buruzkoa, Gipuzkoako ur kontsorzioak zerbitzua ondo bete dezan udalaren informazioa behar izaten baitu.

ARAUTEGI JURIDIKOA:

2. *3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa*, Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena. Oinarrizko printzipioak eta gutxieneko baldintzak ezartzen ditu, bai eta Administrazioaren sistemetan ezarri beharreko babes neurriak ere.
3. *951/2015 Errege Dekretua, urriaren 23koa*, urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua aldatzen duena (3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena).
4. *4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa*, Administrazio Elektronikoaren eremuan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena. Araudi honen helburua Administrazio publikoek erabiltzen dituzten sistemen eta aplikazioen elkarreragingarritasun tekniko, semantiko eta antolamenduzko maila egokia bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea da, zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoaren bidez eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko aukera ematen duena, eta, aldi berean, zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izatea. Aldi berean, eraginkortasunaren eta efizientiaren onerako da.
5. *2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa*, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (aurrerantzean, “DBEO”).
6. *3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa*, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (aurrerantzean, “DBEDBLO”).
7. *39/2015 Legea, urriaren 1ekoa*, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
8. *40/2015 Legea, urriaren 1ekoa*, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.



9. *1671/2009 Errege Dekretua*, azaroaren 6koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea zati batean garatzen duena.
10. *7/1985 Legea, apirilaren 2koa*, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatua.
11. *57/2003 Legea, abenduaren 16koa*, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa.
12. *59/2003 Legea, abenduaren 19koa*, sinadura elektronikoari buruzkoa.
13. *19/2013 Legea, abenduaren 9koa*, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
14. *4/2002 Legea, uztailaren 11koa*, informazioaren gizartearen eta merkataritza elektronikoaren zerbitzuei buruzkoa.
15. *37/2007 Legea, azaroaren 16koa*, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa.
16. *25/2007 Legea, urriaren 18koa*, komunikazio elektronikoei eta komunikazio-sare publikoei buruzko datuak gordetzeari buruzkoa.
17. *56/2007 Legea, abenduaren 28koa*, Informazioaren Gizartea Bultzatzeko Neurriei buruzkoa.
18. *9/2014 Lege Orokorra*, maiatzaren 9koa, Telekomunikazioei buruzkoa.
19. *Ebazpena, 2016ko urriaren 13koa*, Herri Administrazioen Estatu Idazkaritzarena, Segurtasuneko Jarraibide Teknikoa onartzen duena, Segurtasuneko Eskema Nazionalaren arabera.
20. *Ebazpena, 2016ko urriaren 7koa*, Herri Administrazioen Estatu Idazkaritzarena, Segurtasunaren Estatuaren Txostenaren Segurtasunerako Jarraibide Teknikoa onartzen duena.
21. *Ebazpena, 2018ko martxoaren 27koa*, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzarena, Informazio Sistemen Segurtasunaren Auditoretzako Segurtasunaren Jarraibide Teknikoa onartzen duena.

Batipat, ondorengo legedian dago xedatuta Tratamendu Eragilearen figura:



2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koak ondorengo esaten du:

“4.artikulua:

Erregelamendu honen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

1)«*datu pertsonalak*»: *pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago.*

2)«*tratamendua*»: *datu pertsonalen ganean edo datu pertsonalen multzoen ganean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datubilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.*

../.

7)«*tratamenduaren arduraduna*»: *bakarrik edo beste batzuekin batera, fitxategiaren helburuak eta bitartekoak erabakitzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea; Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak erabakitzen baditu tratamenduaren helburuak eta bitartekoak, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbide horrek berak ezarri ahalko du nor izango den tratamenduaren arduraduna edo zein izango diren hura izendatzeko irizpide espezifikoak.*

8)«*tratamendu-eragilea*»: *tratamenduaren arduradunaren izenean, datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea”*

Aipatutako Erregelamenduak , bere “6.artikuluan honela dio:”1. Tratamendua zilegia izango da soilik baldin eta baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen bada:...b)Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko. “

- 28.artikuluak honela dio:

“1. Tratamendua arduradun baten kontura egiten bada, arduradun horrek arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatzeko bermeak eskaintzen dituzten eragileak aukeratuko ditu soilik, hartara tratamendua bat etortzeko erregelamendu honetako eskakizunekin eta interesdunaren eskubideen babesa bermatzeko.



2. Tratamendu-eragileak ez du beste eragile batengana joko ez badu aurrez arduradunaren idatzizko baimena, espezifikoa edo orokorra. Azken kasu horretan, beste eragile batzuen aukeraketan edo ordezkapenean aurreikusten diren aldaketen berri jakinaraziko dio eragileak arduradunari, zeinak, hartara, aukera izango baitu aldaketa horien aurka egiteko.

3. Eragileak gauzatu beharreko tratamendua kontratu batek edo Batasunaren edo estatu kideen zuzenbidearen arabeko beste egintza juridiko batek arautuko du, zeinak eragilea arduradunarekin lotuko baitu eta tratamenduaren gaia, iraupena, nolakotasuna eta helburua, eta datu pertsonalen izaera eta interesdun-kategoriak eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak ezarriko baititu. Kontratu edo egintza juridiko horrek zereginhauek esleituko dizkio eragileari:

a) Arduradunaren jarraibide dokumentatuei segituz baino ez ditu tratatuko datu pertsonalak, baita hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzen diren datu pertsonalen kasuan ere, noiz eta ez dagoen horretara behartuta eragileari aplikagarria zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen indarrez; kasu horretan, tratamenduaren aurreko lege-betebehar horren jakitun ipiniko du eragileak arduraduna, salbu eta zuzenbide horrek debekatu egiten badu, interes publikoko arrazoi sendoak direla medio

b) Bermatuko du datu pertsonalen tratamendua egiteko baimena duten pertsonen konpromisoa izango dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko edo konfidentzialtasunari buruzko estatutubetebehar baten mende daudela

c) 32. artikulua araberako beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu.

d) Beste tratamendu-eragile batengana jotzeko 2. eta 4. zenbakietan adierazitako eskakizunak errespetatuko ditu.

e) Tratamenduaren nolakotasuna kontuan hartuta, laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari, ahal den guztietan, neurri tekniko eta antolakuntzako bitartez, III. kapituluaren ezarritako interesdunen eskubideak egikaritzea helburu duten eskabideei erantzuteko arduradunak duen betebeharra konplitzeko.

f) Laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari 32.etik 36.era bitarteko artikulua betetzen direla bermatzeko, kontuan hartuta tratamenduaren nolakotasuna eta tratamendu-eragilearen esku dagoen informazioa.

g) Tratamenduaren arduradunak hartzen duen erabakiaren arabera, datu pertsonal guztiak ezereztu edo itzuliko ditu tratamenduaren zerbitzuen prestazioa amaitutakoan, eta dauden kopia ezabatuko ditu, noiz eta Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak ez duen datu pertsonalak kontserbatzea eskatzen.



h)Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia jarriko du tratamenduaren arduradunaren esku, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoriak, ikuskapenak barne, egin ditzan ahalbidetzeko eta laguntzeko ere.

Lehenengo paragrafoko h) letran xedatutakoa dela-eta, tratamendu-eragileak berehala ipiniko du jakinaren gainean arduraduna baldin eta, beraren aburuz, instrukzio batek erregelamendu hau edo datu-babesaren alorreko Batasunaren edo estatu kideen beste xedapenik urratzen badu.

4)Tratamendu-eragileak beste eragile batengana jotzen badu arduradunaren kontura halako jarduera jakin batzuk aurrera eramateko, 3. zenbakian arduradunaren eta eragilearen artean xedatutako datu-babesari buruzko betebeharrak ezarriko zaizkio bigarren eragile horri, kontratu bidez edo Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera beste egintza juridiko baten bidez, bereziki arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatzeko bermeak eskaintzea, tratamendua erregelamendu honetako xedapenekin bat etor dadin. Bigarren eragile horrek ez baditu datubabesari buruzko bere eginbeharrak betetzen, hasierako eragilearena jarraituko du izaten oso-osorik erantzukizunak arduradunaren aurrean, bigarren eragilearen eginbeharrak betetzeari dagokionez.

5).Tratamenduaren arduraduna erregelamendu honetako 40. artikuluari jarraituz onartutako jokabide-kode bati atxikitzea edo 42. artikuluari jarraituz onartutako ziurtapen-mekanismo bati atxikitzea baliagarria izan daiteke artikulu honetako 1. eta 4. zenbakietako bermeak betetzen dituela frogatzeko.

6).Tratamenduaren arduradunak eta eragileak beren artean banakako kontratu bat egitea eragotzi gabe, artikulu honetako 7. eta 8. artikuluetako kontratu-erakundearen klausulaereduetan oinarritu ahal izango da, osoz edo partez, artikulu honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen den kontratu edo bestelako egintza juridikoa; baita 42. eta 43. artikuluei jarraituz tratamenduaren arduradunari edo eragileari emandako ziurtapen baten zati direnean ere.

7).Batzordeak kontratu-erakundearen klausulaereduak finkatu ahal izango ditu artikulu honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren gai-entzako, 93.2 artikuluan adierazitako azterketa-prozeduraren arabera.



8) Kontrol-agintaritzaren batek kontratuaren klausula-ereduak finkatu ahal izango ditu artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren gaiei begira, 63. artikuluan adierazitako koherentzia-mekanismoen arabera.

9) Artikulu honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen den kontratu edo bestelako egintza juridikoa idatziz jasoko da, baita formatu elektronikoan ere.

10) Artikulu honetako 82., 83. eta 84. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, tratamendu-eragile batek tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten dituen erregelamendu hau urratzen badu, tratamendu

Bestalde, lankidetzaren hitzarmenak ondorengo xedapenetan daude araututa:

-Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47, 143. eta 144. artikuluek administrazioen arteko lankidetzaren harremanak arautzen dituzte:

47.2 artikulua, honela dio Administrazioen arteko Hitzarmenei buruz:

“2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetariko batekoak izango dira:

a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko. Salbuetsita geratzen dira autonomia-erkidego bik edo gehiagok zerbitzu propioak kudeatu eta emateko euren artean sinatzen dituzten administrazio arteko hitzarmenak, autonomia bakoitzaren estatutuak xedatzen duena izango baitute arau hipotesi, betekizun eta baldintzei dagokienez...”

143. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetzaren.

“1. Administrazioak interes orokorraren zerbitzura arituko dira lankidetzan, eta bakoitzak bere eskumenak baliatzeko modua erabaki ahal izango du bere borondatez, printzipio horretarako baliagarri izan dadin.

2. Lankidetzaren harremanak formalizatzeko, alderdiek berariaz onartu beharko dute lankidetzaren organoaren akordioetan edo hitzarmenetan.”

144. artikulua. Lankidetzaren teknikak.



"1. Lankidetza-printzipioa administrazio interesdunek egokien iritzitako tekniken arabera bete ahal izango da, hala nola:

a) Lankidetza-organoetan parte hartzea, administrazio publiko desberdinek eskumenak dituzten gaietan neurriak eztabaidatu eta, hala badagokio, adosteko.

b) Beste administrazio publiko batzuetako organo aholku-emaileetan parte hartzea.

c) Administrazio publiko batek organismo publikoetan edo beste administrazio baten mendeko edo hari lotutako erakundeetan parte hartzea.

d) Beste administrazio publiko batzuei baliabide materialak, ekonomikoak edo pertsonalak ematea.

e) Administrazioen arteko lankidetza, gai jakin bat arautzen duen araudia modu koordinatuan aplikatzeko.

f) Nahitaezkoak ez diren txostenak egitea, administrazioek beren eskumenetan eragina duten proposamen edo jarduketei buruzko irizpidea adieraz dezaten.

g) Ondare-arloko lankidetza-jarduerak, titulartasun-aldaketak eta ondasunen lagapena barne, ondare-legerian aurreikusitakoak.

h) Euskadin aurreikusitako beste edozein.

2. Lankidetza formalizatzen duten hitzarmen eta akordioetan, horiek sinatzen dituzten alderdiek beren gain hartzen dituzten baldintzak eta konpromisoak aurreikusiko dira.

3. Herri-administrazio bakoitzak eguneratuta edukiko du parte hartzen duen lankidetza-organoen eta sinatu dituen hitzarmenen erregistro elektronikoa. "

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Gipuzkoako Ur kontsorzioarekin Tratamendu Eragilearen kontratua sinatzea (Eranskina Kudeaketa-gomendiorako klausula: datu pertsonalak babesteko konfidentziasuna) . Bere edukia ondorengoa da:

Konfidentziasuna eta datu pertsonalen babesa

1. Harreman juridikoa datu pertsonalen tratamenduaren arloan

Zerbitzua emateko, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak datu pertsonalak eskuratu behar ditu, zerbitzua garatzeko beharrezkoak diren datuak, 2006ko azaroaren 29an sinatutako Lankidetza Hitzarmenean deskribatutakoaren arabera. Horren arabera, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak tratamendu-arduradun gisa jarduten du, hau da, datuak tratamenduaren arduradunaren kontura tratatzen ditu, eta



arduradun horrek eta haren zerbitzura dauden langileek Tolosako Udalak emandako datu pertsonalak, kontratua gauzatzean eskuratu behar dituenak, tratatu beharko dituzte une bakoitzean indarrean dagoen datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera.

2. Tratamendu-eragilearen betebeharrak

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eta bertako langileek honako betebehar hauek izango dituzte, datuak babesteko arudiak berariaz hala eskatuta:

1. *Tratatu beharreko datu pertsonalak edo sartzeko jasotzen dituenak mandatu honen xederako soilik erabiltzea. Datuak ezin izango ditu inola ere bere helburuetarako erabili, ez eta kudeaketa-gomendioaren xede den zerbitzua ematearekin zerikusirik ez duen beste edozein helburutarako ere. Ez du modu pribatiboan edo partikularrean erabiliko lortutako eta/edo sortutako informazioa, zeina Tolosako Udalarena izango den, eta ez die hirugarrenei lagako, zabalduko edo transmitituko, salbu eta Udalak eskatuta eta aipatutako Hitzarmena gauzatzeko egindako jarduketan esparruan.*

2. *Datuak Tolosako Udalaren jarraibideen arabera tratatzea. Ildo horretan, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren iritziz jarraibideren batek datuak babesteko araudia urratzen badu, berehala emango dio horren berri Udalari.*

3. *Idatziz jasotzea Tolosako Udalaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa, gutxienez honako hauek jasoko dituenak:*

- *Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta Tolosako Udalaren izenean dihardutenen izena eta harremanetarako datuak, eta, hala badagokio, Tolosako Udaleko datuak babesteko ordezkariarenak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioarenak.*
- *Egindako tratamenduen kategoriak.*
- *Tratamenduari dagokionez hartutako segurtasun-neurri teknikoan eta antolakuntzako neurri teknikoan deskribapen orokorra, honako hauei dagokienez: tratamendu-sistemen eta zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra; datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko gaitasuna, gorabehera fisiko edo teknikoan kasuan; eta tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzako eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatze, ebaluatze eta baloratzeko prozesua.*

4.- *Hitzarmen honen xedearen parte diren prestazioak azpikontratatzeko baimena ematen da, baldin eta datu pertsonalen tratamendua badakarte, bai eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren zerbitzuek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak ere. Berariaz baimentzen da Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Gipuzkoako Urak SA merkataritza-sozietateari emandako zerbitzuak azpikontratatzeko.*

Tolosako Udalaren eskura jarriko da azpikontratatzeko tratamenduen zerrenda, enpresa azpikontratista eta harekiko harremanetarako datuak argi eta garbi identifikatuta. Zerrenda hori Tolosako Udalak eskatuta emango da.

Azpikontratatzeko pertsonak edo enpresak azpieroagilearen izaera izango du, eta behartuta egongo da, halaber, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzera. Hala, kontratu bidez ezarri beharko da bi arduradunen arteko harreman berria, azpieroagilea lotuta egon dadin dokumentu



honetan datu pertsonalen tratamendu egokiari eta eskubideen bermeari buruz azaltzen diren baldintza berberetara (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak ...) eta betekizun formal berberetara. Azpieragileak betebeharrak betetzen ez baditu, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak erantzukizun osoa izango du Tolosako Udalaren aurrean, betebeharrak betetzeari dagokionez.

5. Egindako enkarguaren ondorioz eskuratzen dituen datu pertsonalak isilpean gordetzeko eginbeharrari eustea, prestazioa ematen hasten denetik eta hura amaitu ondoren ere. Ildo horretan, zaindu beharko du eta datu pertsonaletarako sarbidea galarazi kanpoko edozein pertsonari, baita Tolosako Udalarentzako zerbitzuak ematen amaitu ondoren ere.

6.- Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko. Horiei buruz behar bezala informatuta eta prestatuta egon beharko dute, eta Tolosako Udalaren eskura eduki beharko dute hori egiaztatzen duen dokumentazioa.

7.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Tolosako Udalaren kontura artatuko ditu eskubide hauek: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta hura mugatzeko, portabilitaterako eta datuak transferitzeko eskubideak, eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea, profilak egitea barne.

8.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioak informazio-eskubidea emango die datuak biltzen direnean, informazio-edukiak barne:

- *Tolosako Udalaren erreferentzia, tratamenduaren arduradun gisa.*
- *Gipuzkoako ur Partzuergoaren erreferentzia, eragile gisa.*
- *Tratamenduaren helburuak, zerbitzua emateari buruzkoetara mugatuko direnak.*
- *Eskubideak baliatzeko modua, datuak babesteko ordezkariaren bidez, lopd@gipuzkoakour.eus eta*
- *Datuen tratamenduari buruzko informazio zehatza dagoen lekuaren erreferentzia: https://www.gipuzkoakour.eus/Portal_Privacidad/index.aspx.*

Eta horrek ez du eragotziko Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, zerbitzuaren xede den tratamenduaren eragile gisa, datuak tratatzeko informazio gehigarria ematea.

9. Datu pertsonalen segurtasuna urratzen bada, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak gertatutakoari buruzko txosten bat egingo du, eta gomendio bat jasoko du ea kontrol-agintaritza eskudunari eta interesdunei jakinarazteko beharrik badagoen edo ez.

Halakorik izanez gero, gutxienez, honako informazio hau emango du:

- *Datu pertsonalen urraketaren nolakotasuna deskribatzea, bai eta, ahal bada, eragindako interesdunen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua eta eragindako datu pertsonalen erregistroen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua.*
- *Datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak, edo informazio gehiago eman dezakeen beste harremangune batenak.*
- *Datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak deskribatzea.*
- *Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko tratamenduaren arduradunak hartu*



dituen edo proposatu dituen neurriak deskribatzea; neurri horien artean egongo dira, hala badagokio, urraketaren ondorio negatiboak gutxitzeko neurriak. Informazio guztia batera ematea ezinezkoa bada, eta ezintasun horren neurrian, informazioa mailaka emango da, atzerapen bidegaberik gabe.

Txostena Udalari jakinarazi ondoren, harekin koordinazioan jardungo da eta hark baloratzen eta erabakitzen duenaren arabera.

10.- *Tolosako Udalak eskatzen badu, Gipuzkoako Ur Kontsultazioak egingo ditu datuen babesari buruzko inpaktu-ebaluazioak eta hark helaraziko dizkio emaitzak Udalari.*

11.- *Tolosako Udalari laguntzea kontrol-agintaritzari aurretzeko kontsultak egiten, hala badagokio.*

12. *Tolosako Udalaren esku jartzea bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko beharrezko informazioa, bai eta Udalak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoretzak edo ikuskapenak egiteko ere.*

13. *Gipuzkoako Ur Kontsultazioak beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu, tratamenduen arriskueterako egokia den segurtasuna bermatuko dutenak, datu pertsonalen segurtasunari dagokionez, batez ere prebenitzeko datu pertsonalak ustekabeen edo legez kontra suntsitzea, galtzea, ustekabeen edo legez kontra aldatzea, datu horiek baimenik gabe jakinaraztea edo eskuratzea, datu horiek giza ekintzatik eratorriak izan edo ingurune fisiko edo naturaletik eratorriak izan. Bereziki, neurri hauek hartuko ditu:*

- a) Tratamendu-sistemen eta zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eta eskuragarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzea.*
- b) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzea.*
- c) Tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzakoaren eraginkortasuna aldi-aldi egiaztatzea, ebaluatzea eta baloratzea.*
- d) Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea, beharrezkoa bada.*

14. *Tolosako Udalari datu pertsonalak eta horiek jasotzen dituzten euskarriak itzultzea, prestazioa bete ondoren. Itzulketak berekin ekarriko du Gipuzkoako Ur Kontsultazioak erabiltzen dituen ekipo informatikoetako datu guztiak ezabatzea eta dokumentazioa suntsitzea, eta kopia bat gorde ahal izango da, datuak behar bezala blokeatuta, prestazioa gauzatzearen ondoriozko erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Aurreko puntuan aipatutako eragiketa egin ondoren, Gipuzkoako ur Partzuergoak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalari adierazpen idatzia, dagokion edukiarekin, emateko.*

3. Datuen tratamenduaren arduradunaren betebeharrak

Tolosako Udalari dagokio:

- a) Zerbitzua emateko behar diren datu pertsonalak Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren esku jartzea.*
- b) Egiten dituen datu-tratamenduen legimititatea bermatzea.*



- c) *Pertsonen eskubideak bermatzea, adierazitako moduan.*
- d) *Zaintzea Gipuzkoako ur Partzuergoak datuak babesteko araudia betetzen duela.*
- e) *Datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den araudiak eskatzen dituen gainerako betebeharrak guztiak.*

4. Erantzukizuna

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak bere gain hartuko ditu datuak babesteko arauditik eta kontratu hau aplikatetik eratorritako erreklamazio eta kalte-ordainak, nola bien artean, hala hirugarrenen aurrean, bere betebeharrak ez betetzeagatik sortutako kalte-galerak direla eta.

5. Indarraldia

Datuak babesteko klausula horien indarraldia hitzarmen nagusiaren indarraldiari lotuta dago.

BIGARRENA-Gipuzkoako Ur kontsortzioari akordioa jakinaraztea.

3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILAREN ARTEKO HITZARMENA (GIDATZEAN DROGARIK DAGOEN EGIAZTATZEA).

Euskal Herriko Gobernu Kontseiluak 2021eko martxoaren 30ean egindako bilkuran, ondorengo hitzarmenaren eredia sinatzea onartu zuen: Gidatzean drogen presentzia detektatzeko listulaginen analisiari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena.

En fecha 30 de marzo de 2021, el Consejo de Gobierno del País Vasco, acordó autorizar la suscripción del modelo de convenio con los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sobre análisis de las muestras salivares para detectar la presencia de drogas en la conducción.

Apirilaren 9an, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendariak 19/2021 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez onartzen den aipatutako hitzarmena onartzea.

En fecha 9 de abril, el Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, emitió la Resolución 19/2021, de 9 de abril, por la que se acuerda la publicación del modelo de convenio de colaboración referido.

2021ko apirilaren 23an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aipatutako Ebazpena argitaratu zen, Eranskin gixa hitzarmenaren edukia azalduz.

En fecha 23 de abril de 2021, se publica en el Boletín Oficial del País Vasco dicha Resolución, publicándose como Anexo el contenido de dicho Convenio.



Tolosako udalak hitzarmen horri atxikipena emateko interesa du. Izan ere, drogen eraginpean gidatzea gizarte-arazo bat da eta horri aurre egiteko, gertakari horren aurkako borrokan eskumenak dituzten administrazioen arteko koordinazio eta lankidetzako antolakuntza-moduak beharrezkoak dira. Kasu honetan Tolosako Udala eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 143. eta 144. artikuluek administrazioen arteko lankidetzaren harremanak arautzen dituzte:

"143. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetzaren.

1. Administrazioak interes orokorraren zerbitzura arituko dira lankidetzan, eta bakoitzak bere eskumenak baliatzeko modua erabaki ahal izango du bere borondatez, printzipio horretarako baliagarri izan dadin.

2. Lankidetzaren harremanak formalizatzeko, alderdiek berriaz onartu beharko dute lankidetzaren organoen akordioetan edo hitzarmenetan.

144. artikulua. Lankidetzaren teknikak.

1. Lankidetzaren printzipioa administrazio interesdunek egokien irizitako tekniken arabera bete ahal izango da, hala nola:

a) Lankidetzaren organoetan parte hartzea, administrazio publiko desberdinek eskumenak dituzten gaietan neurriak eztabaidatu eta, hala badagokio, adosteko.

El Ayuntamiento de Tolosa está interesado en adherirse a dicho Convenio, consciente de que la presencia de drogas en la conducción constituye un problema social y precisa formuladas organizativas de coordinación y cooperación entre Administraciones, en este caso, entre el Ayuntamiento de Tolosa y la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca.

Los artículos 143 y 144 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público regulan las relaciones de cooperación entre Administraciones:

"Artículo 143. Cooperación entre Administraciones Públicas.

1. Las Administraciones cooperarán al servicio del interés general y podrán acordar de manera voluntaria la forma de ejercer sus respectivas competencias que mejor sirva a este principio.

